1. Sail eta erakunde autonomoetatik Segurtasuneko Lege araudiak ezarritako baldintzak betetzea sustatzea.		1. Promover el cumplimiento, desde los diferentes Departamentos y Organismos Autónomos, a las exigencias establecidas en la normativa de Seguridad.
Auditoria-kopurua.	**3**	Número de auditorías.
2. Sailek, erakunde autonomoek eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuek izapidetutako kontrataziorako oinarri teknikoen orriei eta mandatu, agindu eta ebazpenei buruz derrigorrez informatzea, informatika eta telekomunikazioen arloko estandar eta arauetara egokitzeari dagokionez, organo eskudunek sinatu aurretik.		2. Informar preceptivamente, en relación a su adecuación a los estándares y normas en materia de informática y telecomunicaciones, de los Pliegos de Bases Técnicas para la contratación, así como los Encargos y Órdenes y Resoluciones tramitados por los Departamentos, Organismos Autónomos, así como otras entidades del Sector Público vasco, antes de su firma por los órganos competentes.
Mandatuei buruzko txostenen kopurua.	**30**	Número de informes de Encargos.
Oinarri teknikoen orriei buruzko txostenen kopurua.	**90**	Número de informes de Pliegos de Bases Técnicas.
Hornidurei buruzko txostenen kopurua.	**25**	Número de informes de suministros.
Agindu eta ebazpenei buruzko txostenen kopurua.	**2**	Número de informes de Órdenes y resoluciones.
3. Berrikuntza teknologikoak, sartutako tresna berriak eta proiektu korporatibo berriak Eusko Jaurlaritzan eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuetan informazioaren teknologiei lotuta dauden langileen artean zabaltzea.		3. Difundir las novedades tecnológicas, las nuevas herramientas incorporadas y los nuevos proyectos corporativos entre el personal del Gobierno Vasco y entidades del Sector Público vasco relacionado con las Tecnologías de la Información.
Teknologia berriei buruzko mintegiak eta laneko bilerak.	**8**	Seminarios y reuniones de trabajo de Nuevas Tecnologías.
Dibulgazio-aldizkariak (Aurrera!).	**4**	Boletines divulgativos (Aurrera!).
(TEKgunea. Working days/Egunak) jardunaldi teknikoak.	**1**	Jornadas tecnológicas (TEKgunea Working days/Egunak).
4. IKT konbergentziari loturako proiektuetan parte hartzea.		4. Participar en los proyectos relacionados con la convergencia TIC.
Parte hartutako proiektuen kopurua.	**6**	Número de proyectos participados.
5. Sare Korporatibo Administratiboaren baliabide-eskaerak kontrolatzea.		5. Controlar las solicitudes de recursos de la Red Corporativa Administrativa.
Balioztatutako eskaeren kopurua.	**250**	Número de peticiones validadas.
Premiazko eskaerak.	**6**	Peticiones urgentes.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
6. TEKgunean biltegi korporatiboan aplikazioak argitaratzen laguntzea.		6. Colaborar en la publicación de aplicaciones en el Repositorio corporativo TEKgunea.
Aplikazio kopurua.	**2**	Número de aplicaciones.
7. Datuaren Bulegoa.		7. Oficina del dato.
Datuen gobernuaren erabilera-kasuak.	**30**	Casos de uso de Gobierno del Dato.
Katalogoan argitaratutako datu-produktuen kopurua.	**40**	Número de productos de datos publicados en el catálogo.
Erabilitako katalogoko datu-produktuen kopurua.	**20**	Número de productos de datos del catálogo utilizados.
Datu-katalogoko produktuak erabiltzen dituzten proiektuen kopurua.	**10**	Número de proyectos que utilizan productos del catálogo de datos.
Gobernatutako datuen analisirako proiektuen kopurua.	**5**	Número de proyectos de analítica de datos gobernados.
Datuaren Gobernuan prestatutako pertsonen kopurua.	**500**	Número de personas formadas en Gobierno del dato.
8. Adimen Artifizialeko Bulegoa.		8. Oficina de Inteligencia Artificial.
Ebaluatutako adimen artifizioko ekimenak.	**40**	Iniciativas de Inteligencia Artificia evaluadas.
Zeharkako adimen artifizioko ekimenen kopurua.	**5**	Número de iniciativas de Inteligencia Artificia transversales.
Argitaratutako algoritmoak eta adimen artifizialeko sistemak.	**25**	Algoritmos y sistemas de Inteligencia Artificial publicados.

PROGRAMA

1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA

PROGRAMA

1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

ARDURADUNA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDEA

RESPONSABLE

GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
VICECONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y SERVICIOS GENERALES

MEMORIA

1215 programak zerbitzu publikoen kalitatea berritzea eta hobetzea, eta administrazio elektronikoa eraginkortasunez garatu eta ezartzea bultzatzeko kredituak biltzen ditu; halaber, hari dagokio sailak koordinatu eta aholkatzea gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen araudia bultzatzen. Gainera, informazioa eta arreta eskaintzeko zentralizatutako mekanismoak, tresnak eta zerbitzuak kudeatzen ditu, herritarrei zerbitzu publikoetarako irispidea errazten dietenak. Beraz, programaren helburuen artean dago administrazio ireki, eraginkor, efiziente, berdinzale eta berritzailea sustatzea.

Horretarako, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren laguntza du, 132 plazako plantillarekin, 2026ko uztailean 87 emakume eta 36 gizon.

El programa 1215 engloba los créditos destinados a impulsar la innovación y la mejora de la calidad de los servicios públicos, así como el efectivo desarrollo e implantación de la Administración electrónica; además le compete la coordinación y asesoramiento a los Departamentos en materia de transparencia y el impulso de la normativa de transparencia y participación ciudadana. Gestiona también los mecanismos, instrumentos y servicios de información y atención, de carácter centralizado, que facilitan el acceso de la ciudadanía a los servicios públicos. Por tanto, este programa tiene entre sus objetivos promover una Administración abierta, eficaz, eficiente, igualitaria e innovadora.

Para ello, el Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno cuenta con el apoyo de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación Administrativa, con una plantilla de 132 plazas, ocupadas en julio de 2026 por 87 mujeres y 36 hombres.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO PROIEKTUAK GARATZEA, ZERBITZUA ARINTZEKO, SINPLIFIKATZEKO ETA HOBETZEKO		**1. DESARROLLAR PROYECTOS DE INNOVACIÓN ADMINISTRATIVA ORIENTADOS HACIA LA AGILIZACIÓN, SIMPLIFICACIÓN Y MEJORA DEL SERVICIO**
1. Administrazio-prozesuak hobetuko dituzten konponbideak identifikatzea, kudeatzeae eta ezartzea.		1. Identificar, gestionar e implantar soluciones que mejoren los procesos administrativos.
Gobernantza Publikoaren Sailarteko Batzordearen bileren kopurua.	**2**	Número de reuniones de la Comisión Interdepartamental de Gobernanza Pública.
Open Data Euskadin argitaratutako dataset-sarbideen kopurua.	**120.000**	Número de accesos a datasets publicados en Open Data Euskadi.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Administrazioa berritzeko, administrazio-kudeaketa hobetzeko eta sailen arteko prozesuetarako proiektu pilotuen kopurua.	**6**	Número de proyectos piloto de innovación administrativa de mejora en la gestión administrativa, de procesos o interdepartamental.
2. KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA ESKURAGARRIA OSATZEA ETA ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA SUSTATZEA		**2. COMPLETAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE Y PROMOVER EL USO DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS**
1. Herritarrei arreta eskaintzeko «Zuzenean» zerbitzua garatzea.		1. Desarrollar el Servicio de Atención a la Ciudadanía, «Zuzenean».
Zuzenean zerbitzuan modu presentzialean egindako arreten kopurua.	**420.000**	Número de atenciones presenciales realizadas en Zuzenean.
Zuzenean zerbitzuan modu ez presentzialean egindako arreten kopurua.	**380.000**	Número de atenciones no presenciales realizadas en Zuzenean.
2. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea.		2. Promover el uso de los servicios electrónicos.
«Nire Karpeta/Mi Carpeta»n egindako jakinarazpenen kopurua.	**2.700.000**	Número de notificaciones realizadas en «Nire Karpeta/Mi Carpeta».
Euskadi.eus-en Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikora egindako bisita.	**35.000.000**	Número de visitas a la sede electrónica del Gobierno Vasco en Euskadi.eus
3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA HOBETZEA ETA TEKNOLOGIA MODU ADIMENDUAN ERABILTZEA		**3. MEJORAR LA COLABORACIÓN INTERADMINISTRATIVA Y REALIZAR UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA**
1. Administrazio publikoen arteko datuen bitartekaritza handitzea.		1. Aumentar la intermediación de datos entre las administraciones públicas.
EAEko Administrazio publikoen artean tartekatutako datu-kopurua.	**36.000.000**	Número de datos intermediados entre las AAPP.
2. Egoitza elektronikoan herritarren sinadurak handitzea.		2. Aumentar las firmas de la ciudadanía en la sede electrónica.
Egoitza elektronikoan dauden herritarren sinadura-kopurua.	**9.000.000**	Número de firmas de la ciudadanía en sede electrónica.

PROGRAMA

1217 ERAKUNDEEN HARREMANAK

ARDURADUNA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA
ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA

PROGRAMA

1217 RELACIONES INSTITUCIONALES

RESPONSABLE

GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
VICECONSEJERO DE RELACIONES INSTITUCIONALES

MEMORIA

Programa honen bidez 2027ko ekitaldirako egituratzen diren helburuak:

Gobernu Kontseiluari dagokionez, behar diren egokitzapen informatikoak egiten jarraituko da, eremu horretan aztertu beharreko gaien izapidetzea eta kudeaketa hobetzeko.

Akordioak izapidetzeko behar diren betekizun juridikoak, finantzarioak eta formalak betetzen direla zainduko da, bai eta legegintza-teknikaren izapideei eta jarraibideei buruzko arauak betetzen direla ere.

Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko harremanen eremuan, ez dago aurreikusita eremu horretan euskarria ematen duten aplikazio informatikoak aldatzea, hargatik eragotzi gabe unean uneko egokitzapenak egitea premia espezifikoak detektatzen direnean.

Era berean, Hitzarmenen Erregistroaren aplikazio informatikoa ondo funtzionatzen ari da, beraz beharrezko doikuntzak egitea baino ez da aurreikusten, sailek antzematen dituzten beharren arabera.

Kontseiluaren aplikazioan funtzionalitate berri bat ezarri da, eta, beraz, gairen bat Gobernu Kontseilura bidaltzen den bakoitzean adierazi beharko da Gobernu Programarekin lotuta dagoen ala ez, eta, hala badagokio, zer konpromiso edo ekimen zehatzekin; probaldian dago, eta behin probaldia egin eta beharrezko egokitzapenak egin ondoren, ezin izango zaio Kontseiluari bidali zerikusia duen konpromisoa eta ekimena adierazi ez duen gairik.

Euskal Autonomia Erkidegoko xedapenen eta egintzen publizitate ofizialari dagokionez, EHAA modernizatzeko eta epe luzerako funtzionamendua eta aldizkarian argitaratu behar diren dokumentuen arintasuna bermatzeko gaur egungo aplikazio informatikoak egokitzeko beharrizanak sakon aztertzeari ekin zaio.

Objetivos para el ejercicio 2027 que se articulan a través de este programa:

En relación con el Consejo de Gobierno, se seguirán llevando a cabo las adecuaciones informáticas precisas orientadas a la mejora de la tramitación y gestión de los asuntos a tratar en este ámbito.

Se velará por el cumplimiento de los requisitos jurídicos, financieros y formales necesarios para la tramitación de los acuerdos, así como el cumplimiento de las normas sobre tramitación y directrices de técnica legislativa.

En el ámbito de las relaciones con el Parlamento y el Ararteko no está prevista la modificación de las aplicaciones informáticas que dan soporte en este ámbito, sin perjuicio de adaptaciones puntuales cuando se detecten necesidades específicas.

Igualmente, la aplicación informática del Registro de Convenios está funcionando correctamente, por lo que sólo se prevé realizar los ajustes necesarios en función de las necesidades que detecten los departamentos.

Se ha implantado una nueva funcionalidad en la aplicación de Consejo de forma que cada vez que se eleve algún asunto al Consejo de Gobierno se deberá indicar si está relacionado o no con el Programa de Gobierno y, en su caso, con qué compromiso o iniciativa concreta; está en periodo de prueba y una vez realizado el mismo y realizadas las adaptaciones precisas, no se podrá remitir para el Consejo ningún asunto en el que no se haya indicado el compromiso e iniciativa con el que está relacionado.

Por lo que hace referencia a la publicidad oficial de disposiciones y actos de la Comunidad Autónoma del Euskadi, se ha iniciado un estudio en profundidad de las necesidades de adaptación de las aplicaciones informáticas actuales para la modernización del BOPV y garantizar su funcionamiento a largo plazo y la agilización de los documentos que han de publicarse en el boletín.

Egokitze-prozesua hiru fasetan garatuko da: lehenengoan, egoeraren azterketa egingo da; lehen fase hori amaituta dago; bigarren fasean, lan-ildoak ezarriko dira, eta lehentasunak ezarriko dira, lan-ildo horiek ezarri ondoren, ondo orientatuta egongo den eta aztertutako puntuak jasoko dituen kontratazio-agiri bat presta dadin.

El proceso de adaptación se desarrollará en tres fases; una primera en la que se lleva a efecto un análisis de la situación; esta primera fase ya está finalizada; en una segunda fase se establecerán las líneas de trabajo y se marcarán prioridades para que, una vez establecidas estas líneas de trabajo, preparar un pliego de contratación que esté bien orientado y en el que estén recogidos los puntos analizados.

Gainera, eskuliburu espezifikoak jarriko dira sailen eskura, langile horiek buletinaren aplikazioa ezagutu eta erabil dezaten.

Además, se pondrán a disposición de los departamentos manuales específicos para facilitar a dicho personal el conocimiento y manejo de la aplicación del boletín.

Behin Euskadiko Gardentasun Legea onartuta, 3/2026, beharrezkoa da Gardena Gardentasunaren Euskal Agintaritza abian jartzeko bultzada azpimarratzea.

Una vez aprobada la Ley 3/2026 de Transparencia de Euskadi, es necesario destacar el necesario impulso a la puesta en marcha de la Autoridad Vasca de la Transparencia, Gardena.

Programa honen helburua, demokraziaren kalitatea indartzea, herritarren parte-hartzea, gardentasuna eta kontu ematea sustatzen duten ekimenak eta proiektuak garatzea. Gobernu Irekia eta Gobernu Onarako Zuzendaritzak beste administrazio batzuekin ere lan egiten du, proiektuak eta ekimenak maila askotakoak eta lurralde anitzekoak izan daitezen. Gainera, hainbat proiektu, plan eta ekimenen bidez, Euskadiko, estatuko eta nazioarteko sareetan parte hartzen du, Euskadik bere eskumeneko gaietan duen jardueraren proiekzioa, posizionamendua, ikaskuntza eta dibulgazioa hobetzeko.

Este programa tiene también entre sus objetivos promover el refuerzo de la calidad de la democracia a través del desarrollo de iniciativas y proyectos que fomentan la participación ciudadana, la transparencia y la rendición de cuentas. La dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno colabora además con otras administraciones de forma que los proyectos y las iniciativas son multinivel y multi territoriales. Además, a través de diferentes proyectos, planes e iniciativas participa en redes en Euskadi, a nivel estatal e internacional para mejorar la proyección, el posicionamiento, el aprendizaje y la divulgación de la actividad de Euskadi en los temas que le competen.

Aurrekontu-programa honen beste helburuetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko hiru gobernu-mailak egituratzeko prozesua burutzea da. Horrela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea betetzen jarraituko da. Lege horrek, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari agintzen dio erregelamendu bat onartzea beharrezkoa den zenbait gai erregelamendu bidez garatzeko, legea behar bezala aplikatu ahal izateko. Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeen Erregistroa arautuko duen Dekretua onartu nahi da.

Otro de los objetivos del presente programa presupuestario es culminar el proceso de articulación de los tres niveles de gobierno de la Comunidad Autónoma de Euskadi. De tal manera, continuando con el cumplimiento de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, que entre otras cuestiones contempla el mandato a la Administración General de la Comunidad Autónoma de desarrollar reglamentariamente ciertas materias donde la aprobación de un Reglamento es necesaria para una correcta aplicación de la Ley. Se pretende aprobar el Decreto que regule el Registro de Entidades Locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko langileak egonkortzeko prozesua amaitu ondoren, oinarri berri batzuk argitaratu dira lan-poltsa berri bat eratzeko, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen azpieskaletan gaikuntza nazionaleko langileentzat gordetako lanpostuak bitarteko langileen izendapenaren bidez betetzeko, Idazkaritza, Kontu-hartzailetza eta Diruzaintzako funtzio publikoak behar bezala beteta gera daitezen.

Una vez finalizado el proceso de estabilización del personal de la administración local con habilitación de carácter nacional, se ha procedido a la publicación de unas nuevas bases para la constitución de una nueva bolsa para la provisión de personas para la cobertura, mediante nombramiento de personal interino, de puestos reservados a personal de habilitación nacional de las diferentes subescalas de personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, de modo que queden debidamente prestadas las funciones públicas de Secretaría, Intervención y Tesorería.

Bestalde, 2027an, Administrazio Erregistroen Zerbitzuan, zerbitzu digitalen, prozesuen eta administrazio-prozeduren kalitatea sinplifikatu, automatizatu eta hobetzeko, honako helburu zehatz hauek garatzen jarraituko da:

Por otra parte, en 2027, en el servicio de Registros Administrativos, al objeto de simplificar, automatizar y mejorar la calidad de los servicios digitales, procesos y procedimientos administrativos se continuará con el desarrollo de los siguientes objetivos concretos:

- Existitzen diren elkarreragingarritasun-plataformen erabilera sustatzea eta beste sail, erakunde eta administrazio batzuekin datuak kontsultatzeko eta erabiltzeko bide berriak ezartzea.

- Fomentar el uso de las plataformas de interoperabilidad existentes e implementar nuevos cauces para la consulta y el uso recíproco de datos con otros departamentos, entes y administraciones.

Web atariaren hobekuntza eta sinplifikatzeari eragin duten arreta integrala eta multikanala hobetu, sarrerak eta eskaintzen dituen eredu eta zerbitzuak.

Datuen gobernantza hobetzen laguntzea, Open Dataren eskura elementu gehiago jarriz, katalogoa zabaltzeko.

Optimización de la atención integral y multicanal incidiendo en la mejora y simplificación del portal web, los accesos al mismo y los modelos y servicios que éste se ofertan.

Contribución a la mejora en la gobernanza de datos poniendo más elementos a disposición de Open Data para ampliar su catálogo.

Bestalde, elkarte, fundazio eta elkargo profesionalen arloko aholkularitza eta prestakuntza orokorrari jarraipena emango zaio, bereziki fundazioen sektorearen eta onura publikoko elkarteen existentziaren eta jardueren zabalkundea sustatuz, argitalpenen eta azterlanen bidez.

Por otro lado, se dará continuidad a las tareas de asesoramiento y formación general en materia de asociaciones, fundaciones y colegios profesionales; fomentando especialmente la difusión de la existencia y actividades del sector fundacional y asociaciones de utilidad pública, mediante publicaciones y estudios.

Gainera, babesleta-zereginak esleituta dituzten erakundeen gaineko gobernu-, zaintza- eta ikuskapen-eginkizunak indartuko dira.

Además, se reforzarán las funciones de gobierno, vigilancia, inspección y en caso de ser necesario, sanción sobre las entidades acerca de las que tiene encomendadas tareas de protectorado.

Azkenik, aurreikusita dago 2027ko urtarrilean jarriko dela indarrean Sozietate Zibilen Erregistroa sortzeko Dekretua, eta, beraz, amaitu egingo da behar bezala funtzionatzeko behar den euskarri informatikoaren prestaketa.

Por último, está previsto que en enero de 2027 entre en vigor del Decreto de creación del Registro de Sociedades Civiles, por lo que se finalizará la elaboración del soporte informático necesario para su correcto funcionamiento.

Helburu horien azken hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko 2.219.019 auzotarrak izango dira (1.078.643 gizon eta 1.140.376 emakume).

Los objetivos señalados tendrán como personas destinatarias a los 2.219.019 vecinos y vecinas de la Comunidad Autónoma de Euskadi (1.078.643 varones y 1.140.376 mujeres).

Horretarako, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren eta Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzaren baliabideak dauzka, 61 lanpostuko plantillarekin, 2026ko uztailean, 46 emakume, 14 gizon.

Para ello, cuenta con el soporte de la Dirección de la Secretaría del Gobierno y Relaciones con el Parlamento, la Dirección de relaciones con Administraciones Locales y Registros Administrativos y Dirección de Gobierno Abierto y Buen Gobierno, con una plantilla de 61 plazas, ocupadas en julio de 2026 por 46 mujeres, 14 hombres.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. GOBERNU-KONTSEILUAREN JARDUERA ANTOLATU ETA PRESTATZEA		**1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO**
1. Txostenak eta proposamenak egitea Gobernu Kontseiluaren lanak antolatzeko.		1. Elaboración de informes y propuestas para la ordenación de los trabajos del Consejo de Gobierno.
Txostenak eta proposamenak.	**9**	Informes y propuestas.
2. Gobernu Kontseilura bidalitako gaiak prestatzea, haren saioetako gai-zerrendak eta bertan sartutako gaien txostena egitea.		2. Preparación de los asuntos elevados al Consejo de Gobierno, elaboración de las órdenes del día de sus sesiones e informe de los asuntos incluidos en el mismo.
Espedienteak.	**1.150**	Expedientes.
Gai-zerrendak.	**47**	Órdenes del Día.
Txostenak.	**520**	Informes.
3. Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiak betearazteko dokumentuak prestatu eta behar diren tramiteak egitea.		3. Preparación de los documentos y realización de los trámites necesarios para la ejecución de los acuerdos adoptados por el Consejo de Gobierno.
Saioen aktak.	**47**	Actas de las sesiones.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Ziurtagiriak eta kopia ziurtatuak.	**700**	Certificaciones y copias autenticadas.
Argitalpen ofiziala.	**300**	Publicación oficial.
2. LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA		**2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO**
1. Jaurlaritzari zuzendutako legebiltzar-ekimenak izapidetzea eta aztertzea.		1. Tramitación y análisis de las iniciativas parlamentarias dirigidas al Gobierno.
Izapidetzeak.	**3.400**	Tramitaciones.
2. Jaurlaritzaren ekimenak eta zenbait komunikazio Legebiltzarraren aurrean izapidetzea.		2. Tramitaciones ante el Parlamento de iniciativas gubernamentales y comunicaciones diversas.
Ekimenak.	**6**	Iniciativas.
Aldian behingo informazioak.	**70**	Informaciones periódicas.
3. Legebiltzarraren erabakiak betearaztearen jarraipena, Jaurlaritzari buruzkoak.		3. Seguimiento de la ejecución de los acuerdos del Parlamento referidos al Gobierno.
Txostenak.	**2**	Informes.
3. ARARTEAKOAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA		**3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO**
1. Kexen eta gomendioen jarraipena eta izapidetzeak.		1. Seguimiento y tramitaciones de quejas y recomendaciones.
Kexa eta gomendioei buruzko izapidetzeak.	**2.450**	Tramitaciones relativas a quejas y recomendaciones.
4. EAEKO SEKTORE PUBLIKOAK SINATUTAKO HITZARMENEN INSKRIPZIOA BERMATZEA.		**4. GARANTIZAR LA INSCRIPCIÓN DE LOS CONVENIOS SUSCRITOS POR EL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE**
1. Hitzarmenak Erregistroan inskribatzeko eskaerak izapidetzea eta horien jarraipena egitea.		1. Tramitación y seguimiento de las solicitudes de inscripción de convenios en el Registro.
Hitzarmenen altak inskribatzea.	**250**	Inscripción de altas de convenios.
Hitzarmenen luzapenak inskribatzea.	**20**	Inscripción de prórrogas de convenios.
Hitzarmenen aldaketak inskribatzea.	**15**	Inscripción de modificaciones de convenios.
5. AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA		**5. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA**
1. EHAAn sartzeko bidalitako dokumentuen trataera.		1. Tratamiento de documentos remitidos para insertar en el BOPV.
Dokumentuak.	**12.400**	Documentos.
2. EHAAren edizio elektronikoaren kudeaketa eta kontrola.		2. Gestión y control de la edición electrónica del BOPV.
Aldizkarien kopurua.	**506**	Número de boletines.
Orrialdeen kopurua.	**63.000**	Número de páginas.
PDF fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos PDF.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
EPUB fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos EPUB.
XML fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos XML.
HTML fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos HTML.
SHTML fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos SHTML.
SHTML.IDX fitxategien kopurua.	**12.580**	Número de archivos SHTML.IDX.
3. EHAAren dokumentuen datu-baseen kudeaketa eta kontrola.		3. Gestión y control de bases de datos documental del BOPV.
Dokumentuen kopurua.	**12.580**	Número de documentos.
Indexazioen kopurua.	**12.076**	Número de indexaciones.
Arau-erreferentzien kopurua.	**300**	Número de referencias normativas.
Testu finkatua duten xedapenen kopurua.	**2**	Número de disposiciones con texto consolidado.
Informazioaren hedapen selektiboko zerbitzura harpidetutakoen kopurua.	**4.500**	Número de suscriptores al servicio de difusión selectiva de información.
4. EHAAk ematen dituen zerbitzuen kudeaketa eta fakturazioa.		4. Gestión y facturación de los servicios que presta el BOPV.
Iragarkiak.	**250**	Anuncios.
6. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA HOBETZEA		**6. MEJORAR LA TRANSPARENCIA Y LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA**
1. Publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen bermeak handitzea.		1. Aumentar la publicidad activa y las garantías del derecho de acceso a la información pública.
Gardena webgunera sarbideen kopurua.	**25.000**	Número de visitas al portal de transparencia Gardena.
Kanpo aztertzaileen araberako gardetasun-indizeen betetze-mailaren ehunekoa.	**%100**	Porcentaje del cumplimiento de índices de transparencia según evaluaciones externas.
Gardentasunaren ezarpe-mailari buruzko balantza-txosten kopurua.	**1**	Número de informes de Balance sobre el grado de implantación de la transparencia.
Irekia webgunera sarbideen kopurua.	**1.750.000**	Número de visitas al portal de gobierno abierto Irekia.
Irekiaren bidez bidalitako boletinen kopurua.	**40**	Número de boletines enviados a través de Irekia.
Irekian kargu publikoen agendako ekitaldi nagusien argitaratze kopurua.	**3.500**	Número de eventos publicados de principales actos de la agenda de cargos públicos.
2. Herritarrek parte hartzeko prozesuak.		2. Participación ciudadana.
Gobernu onarekin eta kalitate demokratikoarekin lotutako jardunbide egokiak eta ekimenak ikusarazteko prozesuak berrikustea, aztertzea eta modernizatzea.	**1**	Revisión, análisis y modernización de procesos para la visibilización de buenas prácticas e iniciativas relacionadas con el Buen Gobierno y la Calidad Democrática.
3. Herritarren parte-hartzearen bidez entzute aktiboa bultzatzea.		3. Alentar la escucha activa a través de la participación ciudadana.
Irekia webgunean jasotako herritarren proposamen kopurua.	**250**	Número de peticiones ciudadanas realizadas a través del portal irekia.
Irekia webgunean zabaldutako gobernu proposamenen kopurua, aurretiazko kontsultak eta informazio publikoko tramiteen bitartekoak.	**60**	Número de propuestas de gobierno difundidas en Irekia en sus trámites de consulta pública previa e información pública.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. Gardena Gardentasunaren Euskal Agintaritza abian jartzea.		4. Puesta en marcha de la Autoridad Vasca de la Transparencia, Gardena.
Dekretuaren onarpena.	1	Aprobación de su Decreto.
7. ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO SAREETAN GOBERNU BERRIA BULTZATZEA		**7. PROMOVER EL GOBIERNO ABIERTO EN REDES INTERNACIONALES DE REFERENCIA**
1. Euskadiren parte-hartzea indartzea Gobernu Irekirako Aliantzaren (APA-OGP) esparruan.		1. Reforzar la participación de Euskadi en el marco de la Alianza para el Gobierno Abierto (APA-OGP).
OGP Euskadi 2025-2028 Hirugarren Plana ezartzen jarraitzea.	1	Continuar con la implementación del Tercer Plan OGP Euskadi 2025-2028.
OGP Aliantzaren komunitatean aktiboki parte hartzea, bai eta sarearen nazioarteko eta harekin lotutako goi-bilera eta ekitaldietan ere.	2	Participar activamente en la comunidad de la Alianza OGP, así como en cumbres y eventos internacionales de la red y relacionados.
8. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU GOBERNU-MAILAK EGITURATZEKO PROZESUA AMAITZEA		**8. CULMINAR EL PROCESO DE ARTICULACIÓN DE LOS TRES NIVELES DE GOBIERNO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**
1. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde esparruan gaikuntza nazionala duten funtzionarioen araubide juridikoei buruzko proiektu-dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeen Errolda erregulatzen duen proiektu-dekretua izapidetzen amaitzea.		1. Finalización de la tramitación de los proyectos de decretos relativos al régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco; y, la regulación del Registro de Entidades Locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
Dekretu horien proiektuak izapidetzea.	1	Tramitación de los proyectos de Decreto referidos.
Dekretu horiek aplikatzeko behar den euskarri informatikoa prestatzea.	1	Elaboración del soporte informático necesario para la aplicación de los citados Decretos.
2. Beste bi erakunde mailekin batera (Foru Aldundiak eta Udalak) lankidetzan jarraitu, toki esparruan autonomia edo foru politika publikoen diseinuan udalerrien partaidetza aktiboa lortzeko.		2. Continuar colaborando con los otros dos niveles institucionales (Diputaciones Forales y Ayuntamientos) de manera que se consiga una participación activa de los municipios en el diseño de políticas públicas autonómicas o forales con incidencia en el ámbito local.
Tokiko Politika Publikoaren Euskal Kontseilua dinamizatzea.	1	Dinamización del Consejo Vasco de Políticas Públicas.
Jarraipen bilerak Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin.	3	Reuniones periódicas de seguimiento con Diputaciones forales y Entidades locales.
3. Toki-administrazioaren arloko jarduketak zuzentzea eta koordinatzea.		3. Coordinación y dirección de las actuaciones en materia de administración local.
Toki-erakundeei aholkularitza ematea Euskal Autonomia Erkidegokaren eskumeneko gaietan.	1	Asesoramiento a Entidades Locales en materias de competencia de la Comunidad autónoma de Euskadi.
Toki-administrazioekin informazioa trukatzeari buruz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean jasotako eginkizunak betetzea.	1	Ejercer las funciones recogidas en la Ley de Bases de Régimen Local sobre intercambio de información con Administraciones locales.
4. Estaturako gaikuntza duten funtzionarioak.		4. Personal funcionario con habilitación de carácter nacional.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak funtzionario horien eta haientzat gordetako lanpostuen gainean dituen ahalmenak gauzatzea.	**1**	Ejercer las facultades que ostenta la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre este personal y los puestos a ellos reservados.
Funtzionario horientzat gordetako lanpostuak bitarteko izendapenez betetzeko hautagaien zerrendak kudeatzea.	**1**	Gestionar las relaciones de personas candidatas para la cobertura, mediante nombramiento interino, de puestos reservados a este personal.
9. ADMINISTRAZIO-ERREGISTROEN ARLOAN ESLEITUTAKO ESKUMENAK GAUZATZEN DIRELA BERMATZEA		**9. GARANTIZAR LA MATERIALIZACIÓN DE LAS COMPETENCIAS ATRIBUIDAS EN MATERIA DE REGISTROS ADMINISTRATIVOS**
1. Elkarte, fundazio eta elkargo profesionalen arloko aholkularitza eta prestakuntza orokorra.		1. Asesoramiento y formación general en materia de asociaciones, fundaciones y colegios profesionales.
Argitalpenak eta azterlanak.	**2**	Publicaciones y estudios.
2. Zerbitzu digitalen, prozesuen eta administrazio-prozeduren sinplifikazioa, automatizazioa eta kalitatea hobetzea.		2. Simplificación, automatización y mejora de la calidad de los servicios digitales, procesos y procedimientos administrativos.
Elkarreragingarritasun-zerbitzuak.	**2**	Servicios de interoperabilidad.
Fundazioen web-ataria eta erabili beharreko ereduak etengabe hobetzea.	**2**	Mejora continua portal web y modelos a emplear por las fundaciones.
Zerbitzu berria Open Data datu-katalogoan.	**1**	Nuevo servicio en el catálogo de datos Open Data.
Eragiketa estatistika aberastzea.	**1**	Enriquecimiento operación estadística.
3. Gobernu-, zaintza- eta ikuskapen-funtzioak indartzea.		3. Reforzar las funciones de gobierno, vigilancia e inspección.
Ikuskapen-plana egitea.	**1**	Elaboración de Plan de Inspección.
4. Euskadiko Sozietate Zibilen Erregistroa.		4. Registro de Sociedades Civiles de Euskadi.
Euskal Autonomia Erkidegoko Sozietate Zibilen Erregistroa sortzen duen eta haren erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua indarrean sartzea.	**1**	Entrada en vigor del Decreto por el que se crea el Registro de Sociedades Civiles del País Vasco y se aprueba su reglamento.
Erregistro horren euskarri informatikoa prestatzea.	**1**	Elaboración del soporte informático de dicho registro.

PROGRAMA

1218 ARAUBIDE JURIDIKOA

PROGRAMA

1218 RÉGIMEN JURÍDICO

ARDURADUNA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA
ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA

RESPONSABLE

GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO

MEMORIA

Araubide Juridikoaren Sailburuordetzari dagokio EAEko administrazio orokorraren eta erakunde-administrazioaren kontsulta- eta aholkularitza-eginkizuna, eta administrazio horiek ordezkatzea eta defendatzea edozein jurisdikziotan. Halaber, autogobernuaren, erkidego-garapenaren eta transferentzia-prozesuaren arloko politikan laguntzen du. Horretarako, estatuarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin eta lurralde historikoetako foru-aldundietako organoekin sor daitezkeen eskumen- eta konstituzio-gatazkak ebatzi behar ditu.

Horretarako, Sailburuordetzak Autogobernu Zuzendaritzaren, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza eta Auzibide Zuzendaritzaren laguntza du, 64 lanpostuko plantillarekin, 2026ko uztailean 31 emakume eta 24 gizon.

A la Viceconsejería de Régimen Jurídico corresponde la función consultiva y asesoramiento de la Administración General e Institucional de la CAPV, y la representación y defensa de dichas Administraciones ante cualquier jurisdicción. También ayuda en las funciones de dirección, impulso y desarrollo de la política en materia de autogobierno, desarrollo autonómico, y el proceso de transferencias que implica, así como la dirección de los conflictos de competencia y constitucionales en relación con el Estado, otras CC.AA. y órganos forales de los Territorios Históricos.

Para ello, la Viceconsejería cuenta con el soporte de la Dirección de Autogobierno, Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo y la Dirección de lo Contencioso, con una plantilla de 64 plazas, ocupadas en julio de 2026 por 31 mujeres y 24 hombres.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. GARAPEN AUTONOMIKOA INDARTZEA ETA AZTERTZEA		**1. IMPULSAR Y ANALIZAR EL DESARROLLO AUTONÓMICO**
1. Legegintzari, jurisprudentziari eta doktrinari buruzko txostenak egitea.		1. Realizar informes sobre legislación, jurisprudencia y doctrina.
Txostenen kopurua.	**35**	Número de informes.
Transferentzia-dekretuen kopurua.	**8**	Número de decretos de Transferencias.
2. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN INTERESAK, ARAUAK ETA EGINTZAK DEFENDATZEA		**2. DEFENSA DE LOS INTERESES, NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO**

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
1. Dagoeneko hasita dauden prozedurak izapidetzeaz gainera, jasotzen direnak ere izapidetzea. Prozesu-kopurua:		1. Además de continuar con la tramitación de los ya iniciados, tramitar los nuevos procedimientos que se reciban. Número de procesos:
Administrazioarekiko auzietako prozedura laburtuak.	**1.876**	Procedimientos Contencioso Administrativos Abreviados.
Administrazioarekiko auzietako prozedura arruntak.	**354**	Procedimientos Contencioso Administrativos Ordinarios.
Lan-arloko prozedurak.	**1.071**	Procedimientos Laborales.
Prozedura zibilak.	**65**	Procedimientos Civiles.
Zigor-arloko prozedurak.	**62**	Procedimientos Penales.
Doako Justiziako prozedurak.	**616**	Procedimientos de Justicia Gratuita.
Merkataritza-arloko prozedurak.	**276**	Procedimientos Mercantiles.
Babes jurisdikzionala.	**18**	Protección Jurisdiccional.
Jarduketen eskaintza.	**27**	Ofrecimiento de acciones.
Prozedurak konstituzio auzitegian.	**3**	Procedimientos ante el Tribunal Constitucional.
Arbitraje-batzordearen aurreko prozedurak.	**3**	Procedimientos ante la Comisión Arbitral.
2. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.		2. Tribunal de Cuentas.
Prozedura-kopurua.	**2**	Número de procedimientos.
3. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARAUAK ETA EGINTZAK ANTOLAMENDU JURIDIKORA AHALIK ETA GEHIEN EGOKITZEA		**3. LOGRAR LA MÁXIMA ADECUACIÓN AL ORDENAMIENTO JURÍDICO DE LAS NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO**
1. Legezkotasuna kontrolatzea (Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena behar ez duten xedapen orokorren aurreproiektuak eta zirriborroak aztertzea eta ikertzea).		1. Control de legalidad (examen y estudio de los anteproyectos y borradores de disposiciones generales que no deban ser objeto de dictamen por la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi).
Txosten-kopurua.	**150**	Número de informes.
2. Legezkotasunaren beste txosten batzuk eta arauak lantzeko jarduerak.		2. Otros informes de legalidad y actuaciones de elaboración normativa.
Txosten-kopurua.	**90**	Número de informes.
Aurreproiektuak egitea.	**1**	Elaboración de anteproyectos.
3. Foru eta autonomia Zuzenbidearen alorreko jarduerak sustatzea.		3. Impulso a las actuaciones en el ámbito del Derecho foral y autonómico.
Diru-laguntza Zuzenbidearen Euskal Akademiaren alde.	**1**	Subvención a la Academia Vasca del Derecho.

PROGRAMA

1219 EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO BESTE ZERBITZUAK

ARDURADUNA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITALA ETA AUTOGOBERNUA
EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA
BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN ARDURADUNA

PROGRAMA

1219 OTROS SERVICIOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL CAE

RESPONSABLE

GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO
DELEGADA DE PROTECCIÓN DE DATOS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA CAE
RESPONSABLE DEL SISTEMA INTERNO DE INFORMACIÓN

MEMORIA

Programa honetan, alde batetik, EAEko datuak babesteko ordezkariari bere eginkizunak betetzen laguntzeko aurrekontu-hornidurak jasotzen dira, Gobernantza, administrazio digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretuari jarraituz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, aplikatzea zilegi izan dadin.

Horretarako, Ordezkariak 5 lanpostuko plantillaren laguntza du: 2026ko uztailean 4 emakume eta gizon bat daude.

Bestalde, EAEko Administrazio Orokorrak pertsonak eta eskubideak bermatzeko eta babesteko beste zerbitzu batzuk ematen ditu, programa honetan sar daitezkeenak. Programa honetan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteei eta informatzaileak babesteari buruzko Informazioko Barne Sistemari buruzkoa da, arau-hauste penal edo administratibo larri edo oso larriei edo Europar Batasuneko Zuzenbideari buruzko informazioa emateko barne-kanal gisa den kredituak jasotzen dira. Helburua da informazio horiek jasotzea, ikertzea eta ebaztea, informatzaileei, esku-hartzaileei eta gertaerei buruzko konfidentzialtasuna gordez.

Barne Informazio Sistemak 5 lanpostuko plantillaren laguntza du: 2026ko uztailean 3 emakume eta bi gizon daude.

Este Programa recoge por un lado, las dotaciones presupuestarias cuya finalidad es apoyar a la Delegada de Protección de Datos de la CAE en sus funciones según el Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, y para hacer posible la aplicación del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos en la Administración General de la CAE.

Para ello la Delegada cuenta con una plantilla de 5 plazas, ocupadas en julio de 2026 por 4 mujeres y un hombre.

Por otro lado, la Administración General de la CAE presta otros servicios de garantía y protección de personas y derechos que se pueden encuadrar en este programa. Este recoge las dotaciones correspondientes al Sistema Interno de Información de infracciones normativas y de protección de las personas informantes en el marco del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como canal interno de información sobre posibles infracciones penales o administrativas graves o muy graves o del Derecho de la Unión Europea. Se trata de recibir, investigar y resolver dichas informaciones preservando la confidencialidad sobre informantes, intervinientes y hechos.

El Sistema Interno de Información cuenta con una plantilla de 5 plazas, ocupadas en julio de 2026 por 3 mujeres y 2 hombres.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. HERRITARREK, EMAKUMEEK ETA GIZONEK BEREN DATU PERTSONALAK EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA INSTITUZIONALEAN NOLA TRATATZEN DIREN EZAGUTZEA ERRAZTEA, GARDENTASUNA SUSTATUZ		**1. FACILITAR EL CONOCIMIENTO DE LA CIUDADANÍA SOBRE CÓMO SE TRATAN SUS DATOS PERSONALES EN LA ADMINISTRACIÓN GENERAL E INSTITUCIONAL DE LA CAE, IMPULSANDO LA TRANSPARENCIA**
1. Eskubideak baliatzeko eta aldez aurretik erreklamatzeko prozedurak herritarren eskura jartzea, web orrian, eta jasotako eskaeren jarraipena eta kudeaketa egitea.		1. Poner a disposición de la ciudadanía, el procedimiento de ejercicio de derechos y el procedimiento de reclamación previa accesibles desde la página web, y realizar el seguimiento y gestión de las solicitudes recibidas.
Kudeatutako kontsulten guztizko kopurua.	**150**	Número total de consultas gestionadas.
Emakumeek egindako kontsulten ehunekoa.	**%40**	Porcentaje de consultas realizadas por mujeres.
Gizonek egindako kontsulten ehunekoa.	**%60**	Porcentaje de consultas realizadas por hombres.
Sexu-identitatearekin, sexuarekin eta generoarekin lotutako kontsulten ehunekoa.	**%1**	Porcentaje de consultas relacionadas con identidad sexual, sexo, género.
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin lotutako kontsulten ehunekoa.	**%1**	Porcentaje de consultas relacionadas con víctimas de violencia contra las mujeres.
2. Tratamendu-jardueren erregistroa kontsultatzeko tresna herritarren eskura jartzea, laguntza-eskuliburuarekin batera.		2. Poner a disposición de la ciudadanía la herramienta de consulta del registro de actividades de tratamiento, con su manual de ayuda.
Tratamendu-jardueren erregistroari egindako kontsulten kopurua.	**6.000**	Número de consultas realizadas al Registro de Actividades de Tratamiento.
2. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA INSTITUZIONALEKO LANGILEAK DATUEN BABESAREN ARLOAN PRESTATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA		**2. FORMAR Y SENSIBILIZAR EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE DATOS AL PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL E INSTITUCIONAL DE LA CAE**
1. Datuak babesteari buruzko ikastaroak eta prestakuntza-saioak ematea.		1. Impartir cursos, y sesiones formativas en materia de protección de datos.
Datuak babesteari buruz emandako online oinarrizko ikastaroen kopurua.	**2**	Número de cursos básicos online sobre protección de datos impartidos.
Online ikastaroetara bertaratutakoen guztizko kopurua.	**80**	Número total de asistentes a los cursos on-line.
Emakumeen ehunekoa.	**%60**	Porcentaje de mujeres.
Gizonen ehunekoa.	**%40**	Porcentaje de hombres.
Online emandako prestakuntza-saioen kopurua.	**12**	Número de sesiones formativas on-line impartidas.
Prestakuntza-saioetara bertaratutakoen guztizko kopurua.	**300**	Número total de asistentes a las sesiones formativas.
Emakumeen ehunekoa.	**%70**	Porcentaje de mujeres.
Gizonen ehunekoa.	**%30**	Porcentaje de hombres.
Datuak babesteko erreferenteentzat emandako ikastaroen kopurua.	**1**	Número de cursos para referentes de protección de datos impartidos.
Bertaratutakoen kopurua guztira.	**20**	Números total de asistentes.
Emakumeen ehunekoa.	**%60**	Porcentaje de mujeres.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Gizonen ehunekoa.	**%40**	Porcentaje de hombres.
3. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN EGINKIZUNA BETEZ ANTOLAKUNTZA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA ERATZEA		**3. CONFIGURAR UNA ORGANIZACIÓN EFICAZ Y EFICIENTE EN EL CUMPLIMIENTO DE LA MISIÓN DE LA DELEGADA DE PROTECCION DE DATOS**
1. Arriskuak kudeatzeko eta inpaktua ebaluatzeko metodologia ezartzea, datu pertsonalak diseinutik eta lehenespenez babestuko direla bermatzeko.		1. Implementar la Metodología de gestión de riesgos y evaluación de impacto para garantizar la protección de los datos personales desde el diseño y por defecto.
Metodologia aplikatuko zaien datu pertsonalen tratamenduen kopurua.	**60**	Número de tratamientos de datos personales a los que se les aplicará la metodología.
Datuen babesaren eraginaren ebaluazioa.	**%50**	Evaluación de Impacto relativa a la Protección de Datos.
2. EAEko Administrazio Publikoaren eremuan datu pertsonalen tratamenduaren arduradunekin eta datuen babesaren arloan rolak betetzen dituztenekin koordinazio egokia eta harremanak mantentzen direla bermatzea.		2. Garantizar la adecuada coordinación, así como el mantenimiento de las relaciones con las personas responsables del tratamiento de datos personales y con aquellas que desempeñan los distintos roles en materia de protección de datos en el ámbito de la Administración Pública de la CAE.
Tratamenduaren eta pribatutasun-neurrien arduradunekin egindako bileren kopurua.	**10**	Número de reuniones con responsables de tratamiento y de las medidas de privacidad.
Erreferenteekin egindako bileren kopurua.	**60**	Número de reuniones con las personas referentes en protección de datos.
EAEko Datuak Babesteko Batzordarekin koordinatutako ekintzak.	**1**	Acciones de coordinación con el Comité de Protección de Datos de la CAE.
Txosten eta kontsulta kopurua.	**90**	Número de consultas e informes realizados.
Segurtasun eta Pribatutasun Batzordean parte-hartzeak.	**1**	Reuniones del Comité de Seguridad y Privacidad.
4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN ESPARRUAN ARAU-URRATZEEI ETA INFORMATZAILEAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOAREN BARNE-SISTEMAREN BIDEZ JASOTAKO INFORMAZIOAK IZAPIDETZEA		**4. TRAMITACIÓN DE LAS INFORMACIONES RECIBIDAS A TRAVÉS DEL SISTEMA INTERNO DE INFORMACIÓN DE INFRACCIONES NORMATIVAS Y DE PROTECCIÓN DE LAS PERSONAS INFORMANTES EN EL MARCO DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**
1. Jasotako babes-informazio eta -eskaerak izapidetzea eta ebaztea.		1. Tramitación y resolución de las informaciones y solicitudes de protección recibidas.
Jasotako edo egiteke dauden informazioen eta eskaeren kopurua.	**80**	Número de informaciones y solicitudes recibidas o pendientes.
Ebatzitako edo ikertu gabeko informazioen eta eskaeren kopurua.	**80**	Número de informaciones y solicitudes resueltas o no investigadas.
2. Sistemarako aplikazio informatiko bateratu bat garatzen laguntzea.		2. Colaboración en el desarrollo de una aplicación informática unificada para el Sistema.
Bileren eta horretarako agirien kopurua.	**10**	Número de reuniones y documentos al efecto.
3. Sistema informatzaile posibleen artean zabaltzea.		3. Difundir el Sistema entre posibles informantes.
Hedapen-jarduketen kopurua.	**5**	Número de actuaciones de difusión.
4. Prebentzio-lanak egitea.		4. Realizar labores de prevención.

HELBURUA **EKINTZA** **ADIERAZLEA**	MAGNITUDEA MAGNITUD	**OBJETIVO** **ACCION** **INDICADOR**
Prebentzio-jarduketen kopurua.	**10**	Número de actuaciones de prevención.
5. Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearekiko koordinazioa (kanpoko kanala) eta informazioak jasotzen dituen beste agente batzuekin.		5. Coordinación con la Autoridad Independiente de Protección del Informante (canal externo) y otros agentes receptores de informaciones.
Koordinazio/lankidetzako bileren eta dokumentuen kopurua	**15**	Número de reuniones y documentos de coordinación/colaboración.

PROGRAMA

4712 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN HIZKUNTZA NORMALKUNTZA

PROGRAMA

Kymatioko testuak estandarizatu eta normalizatu ditugu.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari dagokiona:

En relación con el Área de Lenguaje Administrativo:

Hemos continuado con la difusión entre las administraciones públicas de los siguientes recursos y herramientas lingüísticas destinadas a facilitar el uso del euskera en el puesto de trabajo: servicio de consultas sobre lenguaje administrativo y terminología jurídico administrativa DUDA-MUDA; base de datos de consultas DUDANET y aplicativo ELET (Euskaraz Lan Egiteko Tresna).

Seguimos difundiendo la revista Administrazioa Euskaraz, así como otros textos relacionados con el lenguaje administrativo.

Todos los contenidos de nuestra área han sido reubicados en la página web del IVAP.

Hemos publicado cada dos semanas entradas en blog «Administrazio-hizkera argia-Lenguaje administrativo claro».

Hemos impartido los siguientes cursos presenciales sobre lenguaje administrativo:

-«Hizkera argia administrazioko testuetan» (12 horas). 1 edición en Lehendakaritza.

-«Propuestas para la mejora del lenguaje jurídico-administrativo» (16 horas). 2 ediciones.

Hemos tutorizado los siguientes cursos en línea:

-«20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko» (30 horas). 2 ediciones.

-«Mezu elektroniko egokiak idatzi» (20 horas). 4 ediciones.

-«Cómo escribir para la web» (20 horas). Una edición.

-«Weberako nola idatzi» (20 horas). Una edición.

Hemos participado en foros virtuales para la difusión de los trabajos realizados en el ámbito de la normalización y estandarización documental.

Hemos continuado colaborando con la DACIMA y EJIE En la estandarización de textos e interfaces de la aplicación Tramitagune y demás herramientas horizontales del Gobierno. En 2026 hemos estandarizado 303 literales en euskara y 303 en castellano.

Hemos estandarizado y normalizado varios documentos del IVAP: Memoria 2025, diversos documentos de la Unidad de Igualdad, textos de las ETF...

Hemos estandarizado y normalizado el wizard y varios modelos de mensajes del Departamento de Vivienda.

Hemos estandarizado y normalizado los textos de Kymatio.

En relación con el Servicio Oficial de Traductores:

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak hizkuntza-normalizaziorako urratsak eman ditu, eragingarriagoa izateko eta baliabideak hobeto kudeatzeko. Kudeaketa hobearen bidean, IVAPeko zuzendaritzarekin batera zirkular bat taxutu da (ekainaren 12an zuzendariak sinatu eta irailaren 1ean indarrean izango dena) aurrerantzean itzulpen/berrikusketarako zer dokumentu eta zein eskatzaile onartuko diren zehazteko; horri esker, besteak beste, gaur egun gure lana eraentzen duten arauak zehatzago beteko dira, indarrean dauden HOEIak zorrotz aplikatuko dira, eta, gure lana bahetuko denez, bestelako lan-batzuk egiteko moduan izango gara (Europako arau-testuak eta BOEkoak). IZOren itzulpen-jarraibideak ere eguneratuko dira, aipatutako zirkular horren arabera.

El Servicio Oficial de Traductores ha dado pasos hacia la normalización lingüística, con el objetivo de actuar con mayor eficacia y gestionar mejor los recursos. Con el objetivo de mejorar la gestión, se ha elaborado junto con la dirección del IVAP una circular (firmada por la directora el 12 de junio y que entrará en vigor el 1 de septiembre) en la que se concretan los documentos de traducción/revisión y los solicitantes que en adelante aceptará el IZO, lo que permitirá, entre otras cosas, un cumplimiento más exhaustivo de las normas que rigen nuestro trabajo en la actualidad, una aplicación rigurosa de los vigentes Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales; asimismo, dado que nuestro trabajo se va a filtrar, podremos abarcar otro tipo de trabajo (textos normativos europeos y del BOE). También se actualizarán las directrices de traducción del IZO conforme a la citada circular.

Bestalde, idazketa elebiduna bideratzen jarraituko dugu.

Por otra parte, continuaremos trabajando la redacción bilingüe.

Eusko Jaurlaritzaren itzulpen eta berrikusketa-eskaerei erantzun diegu, eta gaztelaniaren eta euskararen artean 18.000.000 hitz inguru itzuli dira. Kopuru horretatik erdia pasatxo, 9 milioi hitz baino gehiago, EHAAn argitaratzeko testuei zegokien eta horietatik erdia baino gehiago (5 bat milioi hitz) berrikusketak ziren. Guztira, iaz baino ia 2 milioi hitz gutxiago izan dira. Nolanahi, urtean landutako idatzizko hitzen bolumena jaistea ez da, inola ere, seinale txarra: aldiz, adierazten du jendea bere kasa ari dela euskaraz sortzen (edo Itzul itzultzaile neuronala erabiltzen), eta hori berri ona da euskararen normalkuntzaren aldetik.

Se han atendido las solicitudes de traducción y revisión del Gobierno Vasco, y se han traducido cerca de 18.000.000 palabras entre el castellano y el euskera. Algo más de la mitad de ese volumen, más de 9 millones de palabras, correspondía a textos a publicar en el BOPV, de los cuales más de la mitad (unos 5 millones de palabras) fueron revisiones. En total, han sido casi 2 millones menos de palabras que el año pasado. En cualquier caso, la reducción del volumen de palabras traducidas/revisadas al año no es, en ningún caso, una mala señal: al contrario, indica que las empleadas/empleados crean en mayor cantidad en euskera por sí mismos (o utilizando el traductor neuronal Itzul), lo que es una buena noticia desde el punto de vista de la normalización del euskera.

Bestalde, beherakada horrek aukera eman digu testu eta molde zaharkituak eguneratu eta egokitzeko, eta barruko lana antolatzeko, eraginkorrago izateko moduan (hainbat lan-batzorde sortu ditugu).

Por otro lado, esta reducción nos ha permitido actualizar y adaptar textos y modelos obsoletos y ser más eficientes en la organización del trabajo interno (se han constituido varias comisiones de trabajo).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 6/2022 Legean ezarritakoa betearaztearren, lege-aurreproiektuen protokoloa moldatzen hasi ginen, eta aurten sistema inplementatzen eta doitzen egon gara. Tramitagune eta Itzulneten arteko komunikazio-zubian sortu diren eragozpenak konpondu nahian, bilerak egin ditugu EJIErekin eta tramitazioko arduradunekin, hartara, bi hizkuntza-bertsioen baliokidetza juridikoa bermatzeko ziurtagiria emateko moduan izateko, Tramitagunen bitartez ere.

Con el fin de dar cumplimiento a lo establecido en la Ley 6/2022, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, comenzamos a adaptar el protocolo de los anteproyectos de ley, y este año hemos trabajado en la implementación y ajuste del sistema. Con el fin de solventar las dificultades detectadas en la conexión entre Tramitagune y Itzulnet, hemos mantenido varias reuniones con EJIE y con los responsables de la tramitación, con el fin de poder emitir el certificado que garantice la equivalencia jurídica de ambas versiones lingüísticas a través Tramitagune.

IZOn estatuko lege garrantzitsuen testu kontsolidatuak eguneratzeko sistema martxan jarrita, zenbait lege eguneratu dira, besteak beste, 1/2025 Lege organikoa, 39/2015 Legea, 40/2015 Legea eta 9/2017 Kontratazioaren Legea. Era berean, BOEko legeen sumarioak itzultzen jarraitu du IZOk.

Con la puesta en marcha en el IZO del sistema de actualización de textos consolidados de leyes estatales relevantes, se han actualizado varias leyes, como la Ley Orgánica 1/2025, la Ley 39/2015, la Ley 40/2015 y la Ley 9/2017 de Contratación. Asimismo, el IZO ha continuado con la traducción de los sumarios de las leyes del BOE.

Bestalde, legeen itzulpenetan ere aurrera egin dugu: EAEko 3 lege itzuli ditugu (Anteproyecto Ley Justicia Restaurativa, Ley de la Diáspora Vasca eta Anteproyecto de Ley de Agricultura, Alimentación y Gastronomia de Euskadi), eta beste bi itzultzen ari gara (Anteproyecto de Ley del Sistema Cultural, eta Texto articulado del anteproyecto de ley de participación institucional y del diálogo social de Pais Vasco). Turismo Legea berrikusten ari gara.

Por otro lado, se ha avanzado en la traducción de la legislación de la CAV: hemos finalizado la traducción de 3 leyes (Anteproyecto Ley Justicia Restaurativa, Ley de la Diáspora Vasca y Anteproyecto de Ley de Agricultura, Alimentación y Gastronomía de Euskadi) y actualmente estamos traduciendo otras 2 (Anteproyecto de Ley del Sistema Cultural Vasco, y y el texto articulado del anteproyecto de ley de participación institucional y del diálogo social de País Vasco). Por otra parte, estamos revisando la Ley de Turismo.

Estatuko legeen itzulpenari dagokienez, Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial itzuli dugu eta beste bi ditugu abian.

Europari begira ere jarri da IZO, eta berriz ekin dio Europar Batasunaren erregelamendu eta zuzentarauak itzultzeari. Bost erregelamendu inportante dagoeneko itzulita daude, eta bide horretan segituko dugu aurrerantzean ere, baina asmoa askoz handiagoa da orain: Terminologiako atalarekin batera, talde berezi bat sortu dugu Europarako lanetarako propio; asmoa da orain arteko itzulpen-lanak eguneratzea (terminoak, fraseologia etab.) eta eguneratze-lan horretan aldatutakoa eta erabakitakoa hurrengo itzulpenetan aplikatzea.

Prestakuntza espezializatua antolatu dugu lan horri ganoraz heltzeko.

Beste gai garrantzitsu asko ere landu dira euskaraz, esaterako, Fiskaltzaren eta Auzitegi Nagusiaren oroitzak, giza eskubideen hainbat txosten, tituluak lortzeko azterketak eta Gobernurako garrantzitsuak diren era guztietako testuak. 2026ko aurreneko deialdiko abokatutzako azterketa itzuli da (lau ataletatik, hirutakoa).

IZOk datu-baseetan gordetzen du egiten duen lana, herritarrei eskaintzeko, eta adimen artifiziala zein gure itzulpen-tresnak elikatzeko.

IZOko interpretazio arloak euskararen eta gaztelaniaren arteko 112 interpretazio-saio egin ditu ekaina bitartean, bilkurak, mahaiak edo beste edozein eratako ekitaldietan euskara erabiltzeko aukera izateko, normal.

Terminologia-zerbitzuari dagokiona:

Euskarazko administrazio eta lege arloko terminología bildu, aztertu, finkatu eta zabaltzeari dagokionez, EUSKALTERM datu-banku terminologikoaren aplikazioan, akatsak zuzentzen eta hobekuntzak egiten jarraitu da:

-Hiztegi terminologikoak banaka kontsultatzeko aukeran, aurkezpenak gehitu zaizkie hiztegiei.

-Datu-bankuaren sailkapenaren eta azpisailkapenen kodeketa osoa berrantolatu da.

-Euskaltermeko kontsulta-interfazearen itxura berritzeko proposamena aztertu da, eta hobetzeko iradokizunak egin dira.

DUDANET aplikazio berritua eta eguneratua probatu da, eta akatsak zuzentzeko proposamenak egin dira.

EUSKALTERM datu-banku terminologikoan kontsultagai jartzeko:

-Europar Batasuneko Tratatuen lexiko eleaniztun eguneratua landu da.

En cuanto a la traducción de la legislación estatal, hemos traducido la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, y tenemos otras dos en fase de traducción.

El IZO se ha orientado, asimismo, a Europa y ha retomado la traducción de los reglamentos y directivas de la Unión Europea. Cinco reglamentos importantes ya han sido traducidos y seguiremos en esta línea, pero la intención es mucho más ambiciosa: junto con la sección de Terminología, hemos creado un grupo específico para todo el trabajo que tenga que ver con Europa, con la intención de actualizar las traducciones realizadas hasta ahora (términos, fraseología, etc.) y aplicar lo modificado y las decisiones adoptadas en futuras traducciones.

Hemos organizado una formación especializada para abordar este trabajo como corresponde.

Hemos trasladado al euskera otros documentos importantes como las memorias de la Fiscalía y del Tribunal Superior de Justicia, algunos informes de derechos humanos, los exámenes para la obtención de varias titulaciones, y todo tipo de textos relevantes para el Gobierno. Se ha traducido el examen de abogacía de la primera convocatoria de 2026 (tres de los cuatro ámbitos).

El IZO almacena su trabajo en bases de datos para ponerlo a disposición a la ciudadanía, y alimentar tanto la inteligencia artificial como nuestras herramientas de traducción.

El área de interpretación del IZO ha realizado 112 sesiones de interpretación entre el euskera y el castellano hasta el mes de junio, con el fin de posibilitar con normalidad el uso del euskera en reuniones, mesas o cualquier otro tipo de evento.

En relación con el Servicio de Terminología:

En lo referido a la recopilación, estudio, fijación y difusión de la terminología jurídico-administrativa en euskera, se ha continuado corrigiendo errores y realizando mejoras en la aplicación de gestión del banco terminológico EUSKALTERM:

-En la opción de consulta individualizada de los diccionarios terminológicos se han añadido las presentaciones.

-Se ha reordenado completamente la codificación de las áreas y subáreas temáticas del banco terminológico.

-Se ha analizado la propuesta para la renovación de la interfaz de EUSKALTERM y se han hecho propuestas de mejora.

Se ha probado la aplicación DUDANET renovada y actualizada y se han realizado propuestas de mejora para corregir los errores observados.

Con el fin de poner para su consulta en el banco de datos terminológico EUSKALTERM:

-Se ha elaborado un léxico multilingüe actualizado de los Tratados de la Unión Europea.

-Hiztegi terminologiko batzuk sakontzen jarraitu da, definizioak edo terminoak berrikusiz, zuzenduz eta adostuz: Jokoaren Administrazioari buruzko Hiztegia, Sagardogintza Hiztegia, Jurisdikzio Soziala Hiztegia.

EUSKALTERM datu-banku terminologikoaren eguneraketa-lanak egin dira:

-Terminologia Batzordeak onartuta kontsultagai dauden 25 hiztegitan, zaharkitutako terminoak eguneratu dira.

-Terminologia Batzordeak aztertu gabeko 20 hiztegitan terminoak zuzendu, ordeztu, osatu eta gehitu egin dira.

-Kontsulta-fitxa berriak gehitu dira.

-Administrazioko izendegi batzuk eguneratu dira.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean euskaratu edo berrikusi beharreko lege-testuen egokitasun eta koherentzia terminologikoa bermatzeko, euskarazko baliokideak proposatu dira, kasuan kasuko ikerketak eginda, lege-testu hauetan:

1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientziaren arloko neurriei buruzkoa; Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen Aurreproiektua; Euskal Sektore Publikoko Administrazioa Arintzeko eta Sinplifikatzeko Legearen Aurreproiektua; Osasun Sailaren dekretua aldatzeko dekretua, eta Europar Batasunaren Tratatuaren eta Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatua.

DUDANETetik, EUSKALTERMetik eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialetik iritsitako kontsulta terminologiko puntualei erantzun zaie.

-Se ha continuado con los trabajos de ampliación diccionarios terminológicos, revisando y corrigiendo definiciones o términos y consensuándolos: Jokoaren Administrazioari buruzko Hiztegia, Sagardogintza Hiztegia, Jurisdikzio Soziala Hiztegia.

Se han realizado trabajos de actualización del del banco terminológico EUSKALTERM:

-Se han actualizado términos obsoletos en 25 diccionarios aprobados por la Comisión de Terminología.

-Se han corregido, sustituido, completado y añadido términos en 20 diccionarios no analizados por la Comisión de Terminología

-Se han añadido nuevas fichas de consulta.

-Se han actualizado algunos de los nomenclátores de la administración.

Con el objeto de garantizar la adecuación y coherencia terminológica de los textos legales a traducir al euskera o revisarlos en el Servicio Oficial de Traductores, se han propuesto equivalentes en euskera, una vez realizadas las investigaciones puntuales correspondientes, en estos textos:

Ley Orgánica 1/2025, de 2 de enero, de medidas en materia de eficiencia del Servicio Público de Justicia; Anteproyecto de Ley de Agricultura, Alimentación y Gastronomía; Anteproyecto de Ley de Agilización y Simplificación Administrativa del Sector Público Vasco; Decreto de modificación del Decreto del Departamento de Salud y el Tratado de la Unión Europea y el Tratado del Funcionamiento de la Unión Europea.

Se han atendido las consultas terminológicas procedentes de DUDANET, EUSKALTERM y del Servicio Oficial de Traductores.

2027. URTERAKO HELBURU OROKORRAK

Kudeaketa aurreratuari dagokiona:

2027ko Kudeaketa Plana egitea.

2026ko Jardueren Oroitza argitaratzea.

Euskarazko hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko kartaren, Liburutegia/Dokumentazio Zentroaren eta Prestakuntza zerbitzuaren kartak ebaluatzea.

IVAPeko pertsonen 10. gogobetetze inkesta eta dagokion hobekuntza-plana.

Euskadiko erakunde publiko edota pribatuen Kudeaketa aurreratuari buruzko kanpo ebaluaketan parte-hartzea.

Kudeaketa aurreratuari edota erakundearen lan-esparruarekin lotutako jarduerari buruzko hainbat foroetan parte-hartzea.

Informatika arloari dagokiona:

Aplikazio informatikoak hobetzea eta egokitzea, herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa izan dezaten, eta sistemen arteko elkarreragingarritasuna hobetzea.

OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2027

En relación con el Área de Gestión avanzada:

Elaboración del Plan de Gestión 2027.

Publicación de la Memoria de Actividad del IVAP 2026.

Evaluación de las cartas de servicios de Evaluación de los Perfiles Lingüísticos de Euskera, Prestakuntza y Biblioteca/Centro de Documentación.

Elaboración de la 10ª evaluación de las personas del IVAP y su posterior plan de mejora.

Participación en evaluaciones externas de gestión avanzada en organizaciones públicas y/o privadas de Euskadi.

Participación en varios foros sobre gestión avanzada y/o relacionados con la actividad del Instituto.

En relación con el Área de Informática:

Mejora y adaptaciones necesarias en las aplicaciones informáticas para el cumplimiento del acceso electrónico de la ciudadanía a los Servicios Públicos, mejorando la interoperabilidad entre sistemas.

Tramitagunerekin lotutako tresna informatikoen multzo bat garatzea, IVAPeko barne-prozesu, baimen eta barne-komunikazio guztiak digitalizatzeko.

Autoprestakuntzako ataria berregituratzea plataformaren interfazea eta edukien hobekuntza eta erabilgarritasuna hobetzeko.

Lan-poltsetarako deialdiak kudeatzeko aplikazioa informatikoaren migrazio plana egitea IVAPek beste administrazioei ematen dizkien zerbitzuak hobetzeko, prozesuak sinplifikatuz eta egungo teknologietara egokituz.

Euskara ikastaroak kudeatzeko aplikazio informatikoaren migrazio proiektuarekin hastea, prozesuak sinplifikatzeko eta estandar teknologikoetara egokitzeko.

IVAPen web-orriko eta erakundearen intraneteko edukiak eta bistaratze-interfazea berregituratzea.

Txat boot pilotu bat garatzea, adimen artifizialean oinarritua, herritarrei enplegu publikora sartzeko deialdiei buruz egin ditzaketen galderei erantzuteko.

Azterlan eta Argitalpenak zerbitzuari dagokiona:

Administrazio Publikoaren eta Administrazio Zientziaren egiturari, antolaketari, jardunari eta araubide juridikoari buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak antolatzea eta egitea, banaka edo beste institutu, unibertsitate edo erakunde batzuekin lankidetzan, eta egiten diren lege-aldaketetan arreta berezia jartzea.

Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin, Euskal autonomiarekin eta gure espezifitateekin lotutako ikerketa sustatzea eta bultzatzea eremu horietan sakontzeko jardunaldiak eta foroak antolatzea.

Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren eta Administrazio Zientziaren eremuan ikerketa eta langile espezializatuen prestakuntza sustatzea, ikerketarako laguntzen eta Jesús M. Leizaola sariaren deialdiaren bidez.

Administrazio publikoarekin, haren jardunarekin eta araubide juridikoarekin eta euskal administrazioaren antolamendu eta erakunde-berezitasunekin lotutako azterlanak edo ikerketak argitaratzea eta zabaltzea, banaka edo beste erakunde batzuekin lankidetzan, egileek eta ikertzaileek aurkezten dituzten materialetatik edo IVAPen prestatutako edo antolatutako materialetatik abiatuta.

Euskal administrazio publikoentzako prestakuntza eta aholkularitza-materialak editatzea eta zabaltzea, banaka edo beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Euskal administrazio publikoei aholkularitza ematea, haiek eskatuta, administrazio publikoaren funtzionamendua eta antolaketa hobetzeko.

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren alderdi teknikoa kudeatzea.

Desarrollo de un conjunto de herramientas informáticas relacionadas con Tramitagune, que permita la digitalización de todos los procesos internos, de autorizaciones y comunicaciones internas en el IVAP.

Restructuración del portal de autoformación para mejorar tanto la interface de la plataforma, como en la mejora y usabilidad de los contenidos.

Elaborar un plan de migración de la aplicación informática de gestión de convocatorias de bolsas de trabajo para mejorar los servicios que el IVAP presta a otras administraciones, simplificando los procesos y adaptándolos a las tecnologías actuales.

Iniciar el proyecto de migración de la aplicación informática de gestión de cursos de euskera para simplificar los procesos y adaptarlos a los estándares tecnológicos.

Reestructuración de los contenidos e interface de visualización tanto de la página web del IVAP como de la intranet del instituto.

Desarrollo de un piloto de chat boot, basado en inteligencia artificial, para responder a la ciudadanía de las preguntas que puedan realizar referentes a las convocatorias de acceso al empleo público.

En relación con el servicio de Estudios y Publicaciones:

Organización y celebración, individualmente o en colaboración con otros institutos, universidades o entidades, de cursos, jornadas y seminarios sobre diferentes temas vinculados a la estructura, organización, actuación y régimen jurídico de la Administración Pública y la Ciencia de la Administración, haciendo especial incidencia en las modificaciones legislativas que se produzcan.

Fomentar e impulsar la investigación relacionada la administración pública, el Derecho Público, la autonomía vasca y nuestras especialidades, a través de la organización de jornadas y foros de profundización en estas áreas.

Promoción de la investigación y la formación de personal especializado en el ámbito de la Administración Pública, del Derecho Público y la Ciencia de la Administración, mediante la convocatoria de ayudas a la investigación y la del premio Jesús M. Leizaola.

Edición y difusión, individualmente o en colaboración con otras entidades, de estudios o investigaciones relacionadas con la administración pública, su actuación y régimen jurídico y las peculiaridades organizativas e institucionales de la administración vasca, partiendo de los materiales que presenten los /las autores/as e investigadores/as o de los materiales preparados u organizados en el IVAP.

Edición y difusión, individualmente o en colaboración con otras entidades, de materiales de formación y asesoramiento para las administraciones públicas vascas.

Asesoramiento a las administraciones públicas vascas, a solicitud de éstas, con el objetivo de mejorar el funcionamiento y la organización de la administración pública.

Gestión, en su vertiente técnica, de la Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas.

Erakundearen argitalpenetan hizkera ez sexista ziurtatzea.

Asegurar la utilización de lenguaje no sexista en las publicaciones del Instituto.

Ikerketako sarien epaimahaietan gizonen eta emakumeen presentzia parekidea bermatzea.

Garantizar la presencia paritaria de hombres y mujeres en los tribunales de ayudas a la investigación.

EVETUri dagokiona:

En relación a EVETU:

Hirigintza, Lurralde antolamendua, Ingurumena eta Etxebizitza-arloko Prestakuntza-jarduerak antolatzea, neurri legegile berriak sartuta.

Organización de actividades formativas en materia de Urbanismo, Ordenación del Territorio, Medio Ambiente y Vivienda, incorporando las nuevas medidas legislativas.

Hirigintzako prestakuntza-ikastaro modularrak (700 ordu) eta ikastaro monografikoak antolatzea.

Organización de los cursos formativos modulares en Urbanismo (700 horas), y de los diversos cursos monográficos.

Euskaraz eskaintzen diren ikastaro kopurua handitzea, eta Bilboz gain, Donostian eta Gasteizen ikastaroak emateko aukera areagotzea.

Incremento de acciones formativas realizadas en euskera, y de la posibilidad de la impartición de cursos en localidades como Donostia o Vitoria-Gasteiz, además de Bilbao.

Prestakuntza-jardueren diseinua eta kudeaketan hobekuntzak.

Continuar con la mejora del diseño y gestión de las actividades formativas.

Ingurumenaren zein hirigintzaren gaineko prestakuntza bultzatu eta kudeatzea Euskadiko administrazio publikoentzat, Eusko Jaurlaritzako sail eta bestelako erakundeekin elkarlanean, baita arlo horretako profesional pribatuen kolektiboarekin ere.

Impulso y gestión de acciones formativas en materia ambiental y urbanística para las Administraciones Públicas Vascas, en colaboración con los Departamentos del Gobierno Vasco y otras instituciones, así como con el colectivo de profesionales privados en la materia.

Bereziki, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailarekin lankidetzan jarraitzea, EVETUren prestakuntza-ekintzak diseinatu eta garatzeari dagokionez.

En especial, continuar con la colaboración con el Departamento de Vivienda y Agenda Urbana, en materia de diseño y desarrollo de las acciones formativas de EVETU.

Teknologia berrietan oinarritutako beste metodologia didaktiko batzuk garatzea.

Impulsar otras metodologías didácticas basadas en las nuevas tecnologías.

Prestakuntza antolatzeko modu berrietara egokitutako prestakuntza-eduki berriak egokitzea eta garatzea.

Adaptar y desarrollar nuevos contenidos formativos adecuados a las nuevas formas de organización de la formación.

Araudi aldaketek dakarten prestakuntza behar berriei erantzuna eman.

Responder a las nuevas demandas formativas que surjan como consecuencia de cambios normativos.

Kalitateko argitalpenen edizioa bultzatzea eta horiek aurkeztea eta zabaltzea, etengabe eguneratzen saiatuz (Hirigintza Kodearen kasuan bezala).

Impulsar la edición de publicaciones de calidad y presentación y difusión de las mismas, procurando su actualización contínua (como en el caso del Código Urbanístico).

Liburutegia / Dokumentazio-guneari dagokiona:

En relación con la Biblioteca / Centro de Documentación:

Erabiltzaileek liburutegiaren erabilerari, funtsei, zerbitzuei eta baliabideei buruz eta informazioa eta dokumentuak bilatzeari eta aurkitzeari buruz egindako kontsultei modu asegarrian eta ahalik eta epe laburrenean erantzutea.

Responder satisfactoriamente y en el menor plazo de tiempo posible a las consultas de las personas usuarias sobre uso, fondos, servicios y recursos de la biblioteca y sobre búsqueda y localización de información y documentos.

Euskal administrazio publikoetako langileei dokumentazio eta bibliografia arloan laguntza ematea.

Realizar una labor de apoyo documental y bibliográfico a las personas trabajadoras de las administraciones públicas vascas.

Hirigintza eta Ingurumenari buruz interesa duten adituen informazio-beharrei erantzutea.

Atender las necesidades de información de las personas especialistas interesadas en los temas relacionados con el Urbanismo y el Medioambiente.

Liburutegiak dituen monografiak eta aldizkako argitalpenak irakurgelan kontsultatzeko aukera ematea, bai eta irakurgelan eskuragarri dagoen ordenagailuaren erabilera erraztea ere, Internetera eta liburutegiak harpidetutako datu-baseetara sartzeko.

Facilitar las consultas en sala de las monografías y publicaciones periódicas de que dispone la biblioteca, así como el acceso a Internet y bases de datos suscritas por medio del ordenador disponible en la sala de lectura.

Funts monografikoak liburutegitik kanpo erabiltzeko aukera ematea, etxerako maileguaren bidez, maileguak berrituz eta aleak erreserbatuz. Era berean, erabiltzaileek, liburutegiaren OPACen (online katalogoa) bidez, beren mailegu-eskaerak, mailegu-berritzeak eta ale-erreserbak pertsonalki kudeatzea bultzatuko da. Era berean, erabiltzaileei prestakuntza emango zaie beren mailegu-eskaerak, mailegu-berritzeak eta ale-erreserbak, OPACen bidez (online katalogoa), pertsonalki kudeatu ahal izan ditzaten.

Permitir la utilización de los fondos monográficos fuera de las dependencias de la biblioteca mediante el préstamo domiciliario, la renovación de los préstamos y las reservas de los ejemplares. Asimismo, se formará a las personas usuarias para que puedan gestionar personalmente sus peticiones de préstamo, renovaciones de préstamos y reservas de ejemplares a través del OPAC (catálogo online) de la biblioteca.

Liburutegian eskuragarri ez dauden monografiak beste liburutegi batzuetan lortzea, liburutegien arteko maileguaren bidez. Era berean, beste liburutegi batzuei beren funtsetan ez dituzten monografiak bidaltzea.

Conseguir en otras bibliotecas las monografías no disponibles en la biblioteca mediante el préstamo interbibliotecario, así como suministrar a otras bibliotecas las monografías de las que no disponen en sus fondos.

Liburutegiko funts bibliografikoak etengabe eguneratzea, Hirigintza eta Ingurumenari buruzko argitalpen berrienak, edo, berriak ez badira, «ezinbestekoak», eskuratuz edo dohaintzan jasoz. Online dauden argitalpenak ere deskargatuko dira.

Actualizar constantemente los fondos bibliográficos de la biblioteca adquiriendo o recibiendo en donativo las publicaciones más recientes, o «imprescindibles» en caso de que no sean recientes, sobre Urbanismo y Medioambiente. También se descargarán las publicaciones disponibles online.

Funts zaharkituak, hondatuak edo liburutegiarentzat intereseko gaiekin zerikusirik ez duten arlokoak xahutzea, material eguneratua eta egokia eskaintzeko.

Expurgar los fondos obsoletos, deteriorados o de temas no relacionados con las áreas de interés para la biblioteca para ofrecer material actualizado y pertinente.

Erabiltzaileek egindako desideratak, hau da, material bibliografikoa erosteko eta aldizkako argitalpen/datu-base berriak harpidetzeko egindako eskaerak kontuan hartzea. Funtsak eskuratzeko eskabide-formulariorako sarbidea web-orrian sartzeko aukera aztertzea.

Tener en cuenta las desideratas o solicitudes de las personas usuarias para la compra de material bibliográfico y la suscripción de nuevas publicaciones periódicas y/o bases de datos. Estudiar la posibilidad de incluir un acceso a un formulario de solicitud de adquisición de fondos en la página web.

Eskatzen dituzten erabiltzaileei liburutegiko aldizkako argitalpenetako artikuluak eta monografien kapituluak edo beste liburutegi batzuetan lortutakoak, banatzea, bai eta online lortutako argitalpenak ere. Liburutegian jasotako monografiak AbsysNet aplikazioan katalogatzea eta sailkatzea ahalik eta lasterren, erabiltzaileen eskura jartzeko. Era berean, fitxa katalografikoan eta dagokion eremuan obraren laburpena sartzea.

Distribuir a las personas usuarias que los soliciten artículos de publicaciones periódicas y capítulos de monografías pertenecientes a la biblioteca, o conseguidos en otras bibliotecas, así como publicaciones conseguidas online. Catalogar y clasificar en la aplicación AbsysNet lo antes posible las monografías recibidas en la biblioteca para ponerlas a disposición de las personas usuarias. Asímismo, incluir dentro de la ficha catalográfica y en el campo correspondiente el resumen de la obra.

AbsysNet aplikazioaren «Seriak» modulua abian jartzea, liburutegiak harpidetutako aldizkako argitalpenen aleen (eskaerak eta bildumak) datuak sartuz. Horrela, aleen harrera kontrolatuko da, eta erabiltzaileek zein beste liburutegi batzuek liburutegian dauden zenbakiak jakin ahal izango dituzte.

Poner en marcha del Módulo «Series» de la aplicación AbsysNet introduciendo los datos de los ejemplares (peticiones y colecciones) de las publicaciones periódicas suscritas por la biblioteca. De este modo, se controlará la recepción de ejemplares y tanto las personas usuarias como otras bibliotecas podrán saber los números disponibles en la biblioteca.

Liburu berrien buletinak prestatzea, banatzea eta web-orrian argitaratzea hiru hilean behin.

Elaborar, difundir y publicar en la página web los boletines de novedades bibliográficas trimestralmente.

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko informazio-buletinak hilero prestatzea, banatzea eta web-orrian argitaratzea.

Elaborar, difundir y publicar en la página web los boletines informativos sobre Urbanismo y Medioambiente mensualmente.

Hautaketa-zerbitzuari dagokiona:

En relación con el Servicio de Selección:

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2017-2021 Lan Eskaintza Publikoetatik eratorritako hautaketa-prozesuen kudeaketarekin amaitzea.

Concluir con la gestión de los procesos selectivos derivados de las Ofertas de Empleo Público 2017-2021 de la Administración General de Euskadi.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2023-2026ko Lan Eskaintza Publikoetatik eratorritako hautaketa-prozesuak kudeatzea.

Gestionar los procesos selectivos derivados de las Ofertas de Empleo Público 2023-2026 de la Administración General de Euskadi.

Behar bereziak dituzten pertsonei (ezgaitasuna, gaixotasuna, istripua, haurdunaldia, amatasuna, etab.) Hautaketa-prozesuetako beste hautagaiekiko baldintza berdintsuetan partehartzea ahalbidetzeko beharrezkoak diren baliabide material eta teknikoak ezartzea.

Euskadiko Administrazio Orokorrean langile-beharrak betetzeko beste hautaketa-prozesuak kudeatzea.

Euskal enplegatu publikoak hautatzeko prozesuak epaitzeaz arduratzen diren epaimahai kalifikatzaileetan ordezkariak izendatzea eta haien jarraipena egitea.

Hautaketa-prozesuetako epaimahai kalifikatzaileetako ordezkarien lana erraztea, aholkularitza-eskuliburu bat eta barne-prestakuntzako eta epaimahaietako kideei laguntza eta prestakuntza emateko plan bat eginez.

Etorkizuneko hautaketa-prozesuei buruzko hausnarketan aurrera egiten jarraitzea, hobekuntza-aukerak identifikatuz eta beharrezko ekintzak martxan jarriz.

Toki- eta foru-administrazioekin lankidetzan aritzea haien deialdietako hautaketa-prozesuak kudeatzen, haiek eskatzen dutenean eta lan-kargak ahalbidetzen duenean.

EAEko udalekin hautaketa-prozesu bateratuak sustatzea.

Zinpeko itzultzaileen eta interpreteen habilitazioa lortzeko probetan lankidetzan aritzea.

Prestakuntza-zerbitzuari dagokiona:

2026. urteko prestakuntza-plana gauzatzea Eusko Jaurlaritzan.

2027. urterako prestakuntza-plana diseinatzea Eusko Jaurlaritzan.

EUDELekin eta hiru foru-aldundiekin antolatutako prestakuntza-plana, udaletako langileei zuzendua, gauzatzea.

Aurrean aipatutako erakundeekin batera 2027.urteko Prestakuntza-Plana diseinatzea.

Tokiko zuzendaritza publikoko prestakuntza bultzatzea (prestakuntza ibilbideak eta lidergoa).

Hautaketa-prozesuko berariazko prestakuntza-ikastaroak ematea, espetxeetako, eskala juridikoentzako, psikologikoentzako, gizarte-lanekoentzako eta gizarte-hezkuntzak, eta laguntzaileei gordetako lanpostuen lan-poltsak sortzeko.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin prestakuntza arloan egiten dugun lan komunari ekin.

Euskaraz eskaintzen diren ikastaro kopurua handitzea, bai ikastaro presentzialei, bai lineakoei dagokienez.

I., II. eta III. mailetarako konpetentzia digitalei buruzko ikastaroen diseinu berriak sortzea.

Establecer los medios materiales o técnicos necesarios para poder permitir a personas con necesidades especiales (discapacidad, enfermedad, accidente, embarazo, maternidad, etc.) su participación en procesos selectivos en condiciones de igualdad con el resto de aspirantes.

Gestión de otros procesos selectivos destinados a satisfacer las necesidades de personal en la Administración General de Euskadi.

Designación y seguimiento de representantes en los Tribunales Calificadores encargados de juzgar los procesos destinados a la selección de empleados públicos vascos.

Facilitar la labor de los representantes en los Tribunales Calificadores de los procesos de selección mediante la elaboración de un Manual de asesoramiento y de un plan de formación interna y de apoyo y formación a miembros de tribunales.

Seguir avanzando en la reflexión sobre los procesos de selección del futuro, identificando oportunidades de mejora y poniendo en marcha las acciones necesarias.

Colaboración con la Administración Local y Foral en la gestión y asesoramiento de procesos selectivos por ellas convocados, cuando así lo hayan solicitado, y la carga de trabajo lo permita.

Promover la realización de procesos selectivos unificados con los ayuntamientos de la CAE.

Colaboración en las pruebas para conseguir la habilitación de traductores e intérpretes jurados.

En relación con el Servicio de Formación:

Ejecución del plan de formación del año 2026 en el Gobierno Vasco.

Diseño del plan de formación para el Gobierno Vasco para el año 2027.

Ejecución del plan de formación para el personal de los Ayuntamientos elaborado conjuntamente con EUDEL y las tres Diputaciones Forales.

Diseño conjuntamente con las instituciones arriba señaladas del Plan de Formación 2027.

Impulso a la formación en dirección pública local (Itinerarios formativos y liderazgo).

Impartición de los cursos de formación específicos de los procesos selectivos para la creación de las bolsas de trabajo de los puestos reservados a: escala jurídica, psicológica, trabajo social y educación social, y auxiliares de centros penitenciarios.

Fortalecer el trabajo colaborativo en el campo de la formación que se realiza con las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

Incremento del número de acciones formativas en euskera, tanto en la modalidad presencial, como online.

Creación de nuevos diseños de los cursos sobre las competencias digitales para los niveles I, II y III.

Ikastaroen diseinu berriak garatzea, ikasleen arreta eta prestakuntzaren eraginkortasuna sustatzeko.

Euskadiko administrazio publikoei aholkularitza metodologikoa ematea.

Antolaturiko prestakuntza ekintzen diseinua, kudeaketa eta ebaluaketa hobetzeko metodologiak egitea.

Prestakuntzaren kudeaketa eta eskaintza hobetzea, prestakuntzaren ebaluazioaren eta transferentziaren neurketaren galdetegia ezarrita.

EKI Planeko proiektuak garatzea eta bukatzea.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuetako prestakuntza-ikastaroak diseinatzea eta ematea: idazkaritza azpieskala, idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskala eta kontuhartzailetza-diruzaintza azpieskala.

Hizkuntza-prestakuntza arloari dagokiona:

2027an aurreko urteetan abiatutako hobekuntza-ildoak sendotzen eta garatzen jarraituko dugu, Hizkuntza Prestakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzaileen beharretara hobeto egokitzeko.

Ildo horretatik, IVAPen lanean hasten diren langileen harrera linguistikoa egiten jarraituko dugu, prestakuntza-beharrak ahalik eta zehatzen identifikatzeko eta langile bakoitzak bere lan eginkizunetara egokitutako prestakuntza-ibilbidea diseinatzeko.

Halaber, berariazko ikastaroen eskaintza eguneratzen eta zabaltzen jarraituko dugu, eta, horretarako, langileen beharrei erantzungo dieten ikastaroak antolatuko ditugu.

Euskara ikastaroetan aurreikusten da matrikula-kodearen sistemaren erabilera guztiz finkatzea eta aurreko deialdietan identifikatutako hobekuntzak ezartzea.

Prestakuntza-kudeaketako aplikazio informatikoetan (X73 eta J81), Informatika Unitatearekin lankidetzan, sexu-aldagaia txertatzeko beharrezko egokitzapen teknikoak egingo ditugu. Horri esker, datuak sexuaren arabera ustiatu eta aztertu ahal izango dira.

Araudia eguneratzeari dagokionez, 2027an aurrera egingo dugu 30/2008 Dekretua aldatzeko lanetan, administrazio publikoaren egungo prestakuntza beharretara hobeto egokitzeko. Aldaketaren bidez, honako hau lortu nahi da: prestakuntza sistemaren eraginkortasuna indartzea eta langileen gaitasun profesionalaren etengabeko garapena sustatuko dituzten neurriak txertatzea.

Idazlagun zerbitzuari dagokionez, helburu nagusietako bat izango da erabiltzaileen kopurua handitzen jarraitzea. Horretarako, zerbitzuaren berri emateko ekintzak indartuko ditugu.

Desarrollo de nuevos diseños de cursos que potencien la atención del alumnado y la eficacia de la formación.

Asesoramiento metodológico a las Administraciones Públicas de Euskadi.

Elaboración de metodologías para la mejora en el diseño, gestión y evaluación de las acciones formativas organizadas.

Mejora de la gestión y oferta formativa a partir de la implantación del cuestionario de la evaluación de la formación y medición de la transferencia.

Desarrollar y finalizar la ejecución de los Proyectos del EKI plana.

Diseño e impartición de los cursos selectivos de formación de los procesos selectivos para el acceso a la escala de funcionarios de la Administración Local con Habilitación de Carácter Estatal: subescala secretaría, subescala secretaría-intervención y subescala intervención-tesorería.

En relación con el Área de Formación Lingüística:

En 2027 seguiremos consolidando y desarrollando las líneas de mejora iniciadas en años anteriores, con el fin de adaptar mejor los servicios que ofrece el área de Formación Lingüística a las necesidades de las personas usuarias.

En esa línea, seguiremos realizando la acogida lingüística al personal que comienza a trabajar en el IVAP, con el objetivo de identificar de la forma más precisa posible sus necesidades formativas y para que cada persona diseñe su propio itinerario de formación adaptado a sus funciones laborales.

Asimismo, continuaremos actualizando y ampliando la oferta de cursos específicos, organizando acciones formativas que den respuesta a las necesidades del personal.

En lo que respecta a los cursos de euskera, se prevé consolidar plenamente el uso del sistema de código de matrícula e implantar las mejoras identificadas en convocatorias anteriores.

En las aplicaciones informáticas de gestión de la formación lingüística (X73 eta J81), en colaboración con la Unidad de Informática, realizaremos las adaptaciones técnicas necesarias para incorporar la variable sexo. Gracias a ello, se podrán explotar y analizar los datos desagregados por sexo.

En relación con la actualización normativa, en 2027 seguiremos avanzando en los trabajos de modificación del Decreto 30/2008, con el fin de adecuarlo mejor a las necesidades formativas actuales de la administración pública. Mediante esta modificación queremos reforzar la eficacia del sistema de formación e incorporar medidas que impulsen el desarrollo continuo las competencias profesionales del personal.

En cuanto al servicio Idazlagun, uno de los principales objetivos será seguir incrementando el número de personas usuarias. Para ello, reforzaremos las acciones de difusión del servicio.

Bukatzeko, ELEBI programaren esparruan, sail eta profil profesional gehiagotara iristen saiatuko gara. Mintegietan jasotako prestakuntzaren helburua izango da lan esparruan euskararen erabilera handitzeaz gain, erabilera hori kalitatezkoa eta lan-jardunerako benetan baliagarria izatea.

Ebaluazio-arloari dagokiona:

Euskal Sektore Publikoko entitateetako langileentzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko bi deialdi orokorrak egingo ditugu.

Euskadiko administrazio publikoetako eta sektore publikoko entitateetako hautaketa prozesuetan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egingo ditugu.

Euskadiko administrazio publikoek eta sektore publikoko entitateek deitzen dituzten desgaitasun intelektuala dutenentzako hautaketa prozesuetan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egingo ditugu, azterketa-ereduak eta horien aplikazioa hautagaien beharrizanetara egokituz.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetan aplikatzen ditugun azterketa-ereduen diseinua eta osaera berrikusten jarraituko dugu eta, behar izanez gero, aldaketak ezarriko ditugu.

19/2024 Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan jasotako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko sistema berrien bidez hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak egingo dira.

Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren hurrengo deialdi bateratuan, euskararen ezagutza neurtzeko ebaluazio-probak egingo ditugu.

Euskarazko hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko Zerbitzuen Karta berrikusi eta eguneratuko dugu.

Administrazio-hizkera arloari dagokiona:

Baliabide informatiko hauek erabiliko ditugu: administrazio hizkerari eta terminologia juridiko administratiboari buruzko zalantzak argitzeko zerbitzua (DUDA-MUDA); DUDANET kontsulten datu-basea eta ELET aplikatiboa (Euskaraz Lan Egiteko Tresna).

Administrazio hizkerari buruzko testu batzuk argitaratuko ditugu.

Aldian-aldian artikuluak argitaratzen jarraituko dugu «Administrazio-hizkera argia-Lenguaje administrativo claro» blogean.

Foroetan (aurrez aurrekoak zein lineakoak) parte hartuko dugu dokumentuen estandarizazio eta normalizazio arloan egindako lanak zabaltzeko.

Administrazio hizkerari buruzko aurrez aurreko ikastaro honen hainbat edizio emango ditugu: «Hizkera argia administrazioko testuetan» (12 ordu).

Por último, en el marco del programa ELEBI, trataremos de llegar a un mayor número de departamentos y perfiles profesionales. El objetivo de la formación impartida en los seminarios será, además del incrementar el uso del euskera en el ámbito laboral, garantizar que dicho uso sea de calidad y verdaderamente útil para el desempeño profesional.

En relación con el Área de Evaluación:

Realizaremos las dos convocatorias generales de acreditación de perfiles lingüísticos a las personas al servicio de las entidades del Sector Público Vasco.

Realizaremos las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en los procesos de selección de las administraciones públicas y entidades del sector público de Euskadi.

Realizaremos las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en los procesos de selección convocados por las administraciones públicas y entidades del sector público de Euskadi para personas con discapacidad intelectual, adecuando los modelos de examen y su aplicación a las necesidades de las personas candidatas.

Seguiremos revisando el diseño y composición de los modelos de examen que aplicamos en las pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos, e implantaremos los cambios que sean necesarios.

Se realizarán las convocatorias para la acreditación de los perfiles lingüísticos mediante los nuevos sistemas de acreditación recogidos en los artículos 28 y 29 del Decreto 19/2024.

Se realizarán las pruebas de evaluación del conocimiento de euskera en la próxima convocatoria unificada de la Ertzaintza y la Policía Local.

Se revisará y actualizará la Carta de Servicios para la evaluación de los perfiles lingüísticos de euskera.

En relación con el Área de Lenguaje Administrativo:

Mantendremos el servicio de consultas sobre lenguaje administrativo y terminología jurídico-administrativa DUDA-MUDA; base de datos de consultas DUDANET y aplicativo ELET (Euskaraz Lan Egiteko Tresna).

Continuaremos difundiendo textos relacionados con el lenguaje administrativo en euskera.

Continuaremos publicando periódicamente artículos en el blog «Administrazio-hizkera argia-Lenguaje administrativo claro».

Seguiremos participando en foros (presenciales y virtuales) para la difusión de los trabajos realizados en el ámbito de la normalización y estandarización documental.

Impartiremos varias ediciones del siguiente curso presencial en euskera sobre lenguaje administrativo: «Hizkera argia administrazioko testuetan» (12 horas).

Administrazio hizkerari buruzko aurrez aurreko ikastaro honen hainbat edizio emango ditugu: «Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo» (16 ordu).

Lineako ikastaro hauen tutoretzak egingo ditugu:

«20 aholku testu juridikoen kalitatea hobetzeko».

«Mezu elektroniko egokiak idatzi».

«Weberako nola idatzi».

«Cómo escribir para la web».

Gure arloko lanak jasoko dituen webgune berria diseinatu eta jarriko dugu abian.

IVAPeko dokumentuak estandarizatzen eta normalizatzen jarraituko dugu.

Hizkera argiaren ISO Araua euskarara ekarriko dugu.

Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari dagokiona:

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala bere egitura eta antolamendua aztertu eta finkatzen hasita dago eta horretan jarraitu behar du, helburuak eta lehentasunak ondo hausnartu eta zehaztu ondoren. Urte erabakigarria izango da, plantilla egonkortzeko prozesu bereziaren ondoren, zerbitzuko taldea osatu, egokitu eta sendotu behar baita 2026an.

